

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

ZESTOAKO UDALA

Iragarkia

Zestoako Udal Batzarrak, 2014ko uztailaren 22an buruturiko saioan, hasierako onarpema eman zion «Zestoako Udalaren Taxi-Bonua arautzen duen Udal Ordenantza»ri.

Ordenantza hori 30 laneguneko epean jendaurrean jarri zen 2014ko abuztuaren 6ko 147. zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez. Epe horretan Elkartu Gipuzkoako Gutxitasun Fisiko duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak erreklamazioa aurkeztu zuen, beraz, Udal Batzarrak, 2014ko irailaren 25ean buruturiko saioan, ontzat emanaz.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa.

Zestoa, 2014ko irailaren 29a.—Leire Etxeberria Lizarralde, alkatea. (8689)

ERANSKINA

Garraiorako zestoako udalaren taxi-bonua arautzeko Udal ordenantza.

1. artikulua. Araudiaren xedea.

Araudi honek Zestoa herrian garraio publikoak dituen gabeziak gutxitzea du helburu. Horretarako, erabiltzaileei diru-laguntzak emango zaizkie hemen zehatzen diren baldintzetan. Zestoako Udalaren helburu nagusia da herritarrei laguntza ematea mugikortasun arazoak gainditzeko. Horrela, araudi honek zehaztutako baldintzak betetzen dituzten herritarrek diru-laguntza eskatu ahal izango dute udalerrri barneko garraiorako.

Jakina da adinekoek, mendekotasun egoeran daudenek eta mugikortasun mugatua duten minusbaliotasun pertsonak ez dutela inolako aukerarik garraio propioa izateko. Auzoetako herritarrek, gainera, oinarritzko zerbitzuak jasotzeko arazo handiak dituzte.

2. artikulua. Eragin eremua.

Arautzen eta laguntzen den garraio-zerbitzua Zestoako udalerrri barnekoa izango da, udalak gizarte ongizate arloan dituen eskumenetan oinarriturik, adineko, mendekotasun egoeran daudenei edota mugikortasun mugatua duten minusbaliotasun pertsonen zerbitzua emateko.

3. artikulua. Laguntzaren helburuak.

— Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bazterte egoerak saihestea.

— Garraio publikoa erabiltzerik ez dutenentzat taxia erabili ahal izateko diru-laguntza eskaintzea.

— Erabiltzaileen autonomia falta konpentsatzea.

— Gizartean parte hartuz honelako egoerak ekiditea: bakardadea, isolamendu soziala eta nork bere burua abandonatzea.

AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

Anuncio

El Pleno Municipal de Zestoa, en sesión celebrada el 22 de julio, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora del uso del Bono de transporte del Ayuntamiento de Zestoa para el servicio de taxi.

Dicha ordenanza pasó a exposición pública mediante anuncio publicado el 6 de agosto de 2014 en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 147). En ese periodo, el coordinador de la Federación de Personas con Minusvalía de Gipuzkoa Elkartu interpuso una reclamación, que fue aceptada por el Pleno Municipal en su reunión del 25 de setiembre de 2014.

En consecuencia, y de acuerdo con el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro de la ordenanza como anexo del presente anuncio.

Zestoa, a 29 de setiembre de 2014.—La alcaldesa, Leire Etxeberria Lizarralde. (8689)

ANEXO

Ordenanza municipal para la regulación del Bono-Taxi de transporte del Ayuntamiento de Zestoa.

Artículo 1.º Objeto de la regulación.

Esta regulación tiene como objeto hacer frente a las carencias del transporte público en el municipio de Zestoa. Para ello, se concederán ayudas económicas a las personas usuarias bajo las condiciones aquí señaladas. El objetivo principal del Ayuntamiento de Zestoa es ayudar a la ciudadanía en sus problemas de movilidad. Así, aquellos ciudadanos y ciudadanas que cumplan con los requisitos exigidos podrán demandar ayuda económica para el transporte interior del municipio.

Las personas de edad, las que se encuentran en situación de dependencia y las personas con una minusvalía de movilidad reducida no pueden disponer, evidentemente, de vehículo propio, y, además, los vecinos y vecinas residentes en los barrios sufren problemas considerables a la hora de recibir servicios básicos.

Artículo 2.º Ámbito de aplicación.

El servicio de transporte que se regula y ayuda corresponde al del interior del municipio de Zestoa, para dar así servicio a las personas de edad, personas en situación de dependencia o personas con minusvalía de movilidad reducida, en base a las competencias municipales en materia de bienestar social.

Artículo 3.º Objetivos de la ayuda.

— Impulsar la integración de las personas usuarias en su comunidad y hacer frente a situaciones de discriminación.

— Ofrecer una ayuda económica para el uso del taxi a aquellas personas que no pueden utilizar el transporte público.

— Compensar la falta de autonomía de las personas usuarias.

— Evitar, mediante la participación en la sociedad, situaciones de soledad, aislamiento social, abandono, etc.

– Adinekoen, mendekotasun egoeran dauden edota mugikortasun mugatua duten minusbaliotasun pertsonen gaitasun sozialak mantendu eta indartzea.

– Adinekoen, mendekotasun egoeran dauden edota mugikortasun mugatua duten minusbaliotasun pertsonen lotura familiarak eta sozialak gertu izaten eta mantentzen laguntzea.

4. artikulua. Laguntzaren onuradunek bete beharreko baldintzak.

Araudi honetako laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak:

– Zestoako bizilaguna izatea, gutxienik urtebete erroldan alta emanda.

– Erabiltzaileak 65 urtetik gora izatea; edo, 65 urtetik behera baditu, mendekotasun edota mugikortasun mugatua duten minusbaliotasun egoeraren batean egotea. Mendekotasunak autonomia mugatu beharko dio eguneroko jarduerak bere kasa egiteko; eta, kasuz kasu, udaleko gizarte zerbitzuen aldeko txostena beharko da.

– Zestoako udalerrian bizi eta garraio publikoa hurbil ez izatea, hala nola, Aizarnan, Arroa Goian, Endoian, Akoa eta herri-gunetik urrun dauden baserri edo etxeren batean bizitzea.

5. artikulua. Eskerak aurkeztea.

Laguntza jaso ahal izateko prozedurari hasiera emateko interesdunak eskaera aurkeztuko du. Horretarako Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak eredu normalizatua jarriko du nahi duenaren eskura. Eredua bete eta bertan aurkeztu beharko da dagokion dokumentazioarekin batera. Eskerak urte osoan aurkeztu ahal izango dira.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatzaileak:

– Eskatzailearen NAN fotokopia.

– Hala badagokio:

– Eskumena duen balorazio-unitateak egindako txostena, indarrean dauden balorazio-ekalen arabera.

– Urteko diru-sarreraren egiaztagiria: pentsioak, nominak eta bere baliabide ekonomikoen erantzukizuneko aitortpena.

7. artikulua. Eskabideak erabakitzea.

Eskerak jaso ondoren, Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek eskatzailearen egoera baloratu eta diru-laguntza dagokion zehaztuko dute. Proposamena Alkateari helaraziko diote eta horrek erabakia hartuko du.

8. artikulua. Garraio zerbitzuko erabiltzailearen eskubideak.

Erabiltzaileak araudi honetan jasotako eskubideak izango ditu eta, oro har, 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak araututakoak.

9. artikulua. Garraio zerbitzuko erabiltzailearen betebeharrak.

Erabiltzaileak araudi honetan jasotako betebeharrak izango ditu eta, oro har, 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak araututakoak.

10. artikulua. Laguntzarako eskubidea galtzea.

Laguntza arrazoi hauengatik galdu daiteke:

– Norberak uko egitea: idatziz aurkeztu beharko da Zestoako Udalean.

– Zigor baten ondorioz behin betiko galtzea.

– Laguntza jaso ahal izateko baldintzetakoren bat ez betetzea.

– Diru-laguntzaren erabilera okerra edo maltzurra egitea.

– Mantener y fortalecer las capacidades sociales de las personas mayores, personas en situación de dependencia y personas con minusvalía de movilidad reducida.

– Ayudar a las personas mayores, personas en situación de dependencia y personas con minusvalía de movilidad reducida a mantener y tener próximos sus nexos familiares y sociales.

Artículo 4.º Requisitos para las personas beneficiarias de la ayuda.

Requisitos para recibir la ayuda recogida en esta normativa:

– Ser vecino o vecina de Zestoa, con alta en el padrón de al menos un año.

– Tener más de 65 años, o, en su defecto, estar en situación de dependencia o tener una minusvalía de movilidad reducida. La dependencia deberá ser suficiente para limitar las actividades diarias de la persona; además, se necesitará un informe favorable de los servicios sociales municipales en cada caso.

– Residir en el municipio de Zestoa y carecer de servicio público cercano; concretamente, residir en Aizarna, Arroa Goia, Endoia, Akoa o en un caserío o vivienda lejano al casco urbano.

Artículo 5.º Presentación de solicitudes.

La persona interesada deberá presentar una solicitud que dé inicio al procedimiento para recibir la ayuda. Para ello, El Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zestoa pondrá a su disposición un modelo normalizado de solicitud, que deberá ser cumplimentado debidamente y presentado junto a la documentación requerida al efecto. Dichas solicitudes se podrán presentar en cualquier momento del año.

Artículo 6.º Documentación a presentar.

La persona demandante de la ayuda deberá presentar la siguiente documentación junto a la solicitud:

– Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

– En su caso:

– Informe realizado por la unidad de valoración competente según las escalas de valoración vigentes.

– Justificante de ingresos anuales: pensiones, nóminas y declaración de responsabilidad de recursos económicos.

Artículo 7.º Resolución de solicitudes.

Una vez recibida la solicitud, el personal técnico de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zestoa realizará una valoración de la situación y determinará lo precedente o no de la ayuda. A continuación, trasladará su propuesta a la alcaldesa, que será quién toma la decisión correspondiente.

Artículo 8.º Derechos de la persona usuaria de los servicios de transporte.

La persona usuaria tendrá los derechos recogidos en la presente normativa, y, en general, la recogida en el Decreto 64/2004, del 6 de abril de 2004.

Artículo 9.º Obligaciones de las personas usuarias del servicio.

La persona usuaria tendrá los derechos recogidos en la presente normativa, y, en general, la recogida en el Decreto 64/2004, del 6 de abril de 2004.

Artículo 10.º Pérdida del derecho a recibir la ayuda.

Los motivos de pérdida de la ayuda serán los siguientes:

– Renuncia de la persona interesada, que deberá presentarse por escrito ante el Ayuntamiento de Zestoa.

– Pérdida definitiva por sanción.

– Incumplimiento de alguno de los requisitos exigidos.

– Uso indebido o doloso de la ayuda.

– Udalak zerbitzu honetarako bideratutako aurrekontua agortzea.

– Legea urratzea.

11. artikulua. Funtzionamendua.

1. Udalak erabiltzaileari taxian ibiltzeko laguntza-bonua emango dizkio, bonuen izena «taxi-bonua» izango da.

2. Era berean, Udalak «taxi-bonua» erabili ahal diren taxi zerbitzuen zerrenda osatuko du eta beraiekin garraio bakoitzaren gehieneko kostua adostu. Zerrendan nahi duten taxi zerbitzuek izena emango dute.

3. «Taxi-bonua» Zestoako Udalak adostutako taxietan soilik erabili ahalko dira.

4. Erabiltzaile bakoitzari hamar bidaietarako «taxi-bonua» emango zaio, eta agortutakoan berriro eskatu ahal du. Hala ere, ezingo du eskaera berriro egin hamarreko «taxi-bonua» jaso eta bi hilabete igaro arte.

5. Erabiltzaileak garraio bakoitzeko «taxi-bonua» lortzeko ordaindu egin beharko du. Udalak urtero onartuko ditu zerbitzu honen tarifak.

6. «Taxi-bonua» bidaia egitean emango dio taxi gidariari herritarrek, eta hark udalari igorriko dio, aldeztu aurretik adostutako tarifen fakturazioarekin batera.

12. artikulua. Onuradunak udalak ezarritako tarifa ordaindu ezin duenean.

Tarifa hori ordaindu ezin dutenek Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute. Egoiliar onuradunaren egoera ekonomikoaren arabera, dagozkion laguntzak aplikatuko dira.

13. artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Zestoako Udalbatza da (Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikulua).

14. artikulua. Aplikagarria den araudia.

Diru-laguntzak, eta onuradunaren eta udalaren arteko harreman juridikoa, oinarri hauek eta diru-laguntzak emateko orduan indarrean den araudiak arautuko dituzte.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

– Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

– Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

15. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorren 14. artikuluan eta ordenantza honetan zehaztutakoaren arabera, onuradunak honakoak bete beharko ditu:

– Oinarri hauek zehaztutako helbururako erabiltzea diru-laguntza, ez beste ezertarako.

– Udalak eskatzen dion informazio osagarri guztia aurkezte.

– Diru-laguntza jaso ahal izateko baldintzetan edozein gora-behera -objektiboa zein subjektiboa- aldatzen bada, Udalarri horren berri ematea.

16. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

– Agotamiento de la disposición presupuestaria municipal al efecto.

– Infracción de la legalidad.

Artículo 11.º Funcionamiento.

1. El Ayuntamiento proporcionará bonos para el uso del taxi (cuyo nombre será bono-taxis) a la persona beneficiaria.

2. Al mismo tiempo, el Ayuntamiento completará la lista de taxis en los que se podrán utilizar los bono-taxis, con los que acordará el coste máximo de cada servicio de transporte. La lista estará abierta a todos los taxis interesados.

3. Los bono-taxis solo se podrán utilizar en aquellos taxis con permiso del Ayuntamiento de Zestoa.

4. Se proporcionará un bono-taxi de diez viajes a cada persona usuaria, que podrá pedir otro cuando se agote. En todo caso, no podrá realizar otro pedido de diez bono-taxis en el periodo de dos meses a partir de la recepción del anterior.

5. La persona usuaria deberá abonar una cantidad para recibir el bono-taxi de cada viaje. El Ayuntamiento aprobará dichas tarifas anualmente.

6. La persona usuaria hará entrega de los bono taxis al chofer en cada servicio, y, posteriormente, el chofer los enviará al Ayuntamiento, junto con la facturación de la tarifa acordada.

Artículo 12.º En caso de que la persona beneficiaria no pueda pagar la tarifa impuesta por el Ayuntamiento.

Aquellas personas que no puedan pagar dicha tarifa deberán dirigirse a los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zestoa. Se aplicarán las ayudas correspondientes en función de la situación económica de la persona residente beneficiaria.

Artículo 13.º Órgano competente.

El órgano competente para aprobar estas bases es el Pleno del Ayuntamiento de Zestoa, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 22.2.e) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Artículo 14.º Normativa aplicable.

Será de aplicación, además de las presentes bases, la normativa vigente sobre ayudas económicas y relaciones jurídicas entre beneficiario y ayuntamiento.

Además de lo expuesto en estas bases, serán de aplicación en lo referente a las ayudas económicas:

– Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

– Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 15.º Obligaciones de las personas beneficiarias.

De acuerdo con el artículo 14 de la Ley General y lo establecido en la presente ordenanza, la persona beneficiaria deberá cumplir con las siguientes obligaciones:

– Utilizar la ayuda económica exclusivamente con el objetivo señalado en las presentes bases.

– Presentar toda la información complementaria que le pueda requerir el Ayuntamiento.

– Deberá informar al Ayuntamiento en caso de modificación tanto objetiva como subjetiva en lo referente a los requisitos exigidos para ser beneficiario de la ayuda económica.

Artículo 16.º Subsanación de errores.

En caso de que la solicitud o la documentación complementaria contengan algún error o no esté completa, la persona interesada tendrá un plazo de diez días hábiles a partir de la fecha de notificación para su subsanación.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utziko da, prozedura artxibatuz, 30/1992 Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera ebazpena eman eta gero.

17. artikulua. Diru-laguntzen kontrola.

Zestoako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, eta udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte.

18. artikulua. Araudiaren interpretazioa.

Alkateari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza ebaztea.

19. artikulua. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, hura onartu duen organo eskudunaren aurrean. Era berean, zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

20. artikulua. Aurrekontuko diru-hornidura.

Udalak urteko aurrekontuetan zehaztuko du diru-laguntza hauetarako bideratutako zenbatekoa.

2014 urtekoari dagokiona eranskinean zehazten da.

21 artikulua. Diru-partida agortzea.

Laguntzak eskaerak jaso ahala bideratuko dira. Ezarritako aurrekontua agortuko balitz, ekitaldi horretako taxi-bus zerbitzua eten egingo da edo, zerbitzuarekin jarraitu ahal izateko, udalak dagokion aurrekontu aldaketa gauzatuko du.

– 2014 urtea.

1. Ekitaldirako aurreikusitako udaleko gastu partidaren zenbatekoa: 3.000,00 €.

2. Erabiltzaileentzako 10 bonuko taloitegia 20 €.

En caso de que transcurrido ese plazo no se procediera a la subsanación de errores, se procederá a suspender la solicitud y a archivar el proceso mediante resolución previa, de acuerdo con la establecido en el artículo 71 de la Ley 30/1992.

Artículo 17.º Control de las subvenciones.

El Ayuntamiento de Zestoa podrá pedir a las personas beneficiarias la presentación de toda aquella documentación que estime pertinente.

Los servicios municipales podrán personarse para confirmar que se cumplen todos los requisitos, y podrán consultar las bases de datos municipales.

Artículo 18.º Interpretación de la normativa.

Corresponde a la alcaldía resolver cualquier duda que pueda originarse en la interpretación de las presentes bases.

Artículo 19.º Recursos.

Podrá interponerse recurso potestativo de reposición contra las presentes bases ante el órgano competente, o ser impugnado directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo en un plazo de dos meses.

Los plazos empezarán a contarse desde el día siguiente a la fecha de publicación de las presentes bases.

Artículo 20.º Provisión presupuestaria.

El Ayuntamiento fijará la cantidad económica correspondiente a estas ayudas en sus presupuestos anuales.

Se adjunta la correspondiente al año 2014.

Artículo 21.º Agotamiento de la partida económica.

Las ayudas se tramitarán en función de la fecha de solicitud. En caso de agotamiento presupuestario, se suspenderá el servicio de taxi-bus del ejercicio correspondiente o, en su caso, se realizará un cambio en los presupuestos municipales para poder seguir llevando a cabo el servicio.

– Año 2014.

1. Partida de gasto municipal prevista para el ejercicio: 3.000,00 €.

2. Talón de 10 bonos para la persona usuaria 20 €.